



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Etxebizitza-arloan likidatutako
gastua.
Autonomia-erkidegoen
araberako azterketa konparatua



Autonomia-erkidegoek etxebizitzaren arloan jorratutako gastu-politiken bilakaeraren ikuspegi konparatua eskaini nahi du txosten honek. Izan ere, egungo testuinguru ekonomikoa hobea izan arren, aurrekontu-murrizketek oraindik indarrean jarraitzen dute, krisialdian austeritate-politika zorrotza eta gastu publikoaren murrizketa orokorra ezarri ondoren.

Autonomia-erkidegoek eurek Ogasun Ministerioari aurkezten dioten informazioan oinarritzen da txostena. Esan behar da, ordea, metodologia erkidea erabili arren, informazio hori ez dela guztiz homogeneoa izaten eta irismen mugatua ere baduela. **I. eranskinean**, aurkezten den edukia hobeto ulertzen lagun lezaketen aurretiko gogoeta metodologikoak eskaini ditugu. Ez da sartu autonomia-erkidegoen menpeko sozietate eta erakunde publikoek likidatutako gastua, ez eta tokiko erakundeek egindakoa ere.

1.- 2016an etxebizitza-arloan likidatutako gastua

1.1.- 2016an etxebizitzan egindako gastuaren ikuspegi orokorra, autonomia-erkidegoaren arabera

Zenbateko absolutuetan, etxebizitza-arloko gasturik handiena egin duen laugarren autonomia-erkidegoa da Euskadi

2016an 110,7 milioi euro bideratu zituen Euskadik etxebizitza eskuratzen laguntzera eta eraikuntza sustatzera. Hartara, autonomia-erkidegoen arteko laugarren postuan kokatu da gastuaren zenbateko absolutuetan, hiru autonomia-erkidegorik jendetsuenen —Andaluzia, Katalunia eta Madril— atzean.

Nafarroa eta Madrilen atzetik, Euskadi da etxebizitza-alorrera biztanle bakoitzeko aurrekonturik handiena eta aurrekontu osoaren ehunekorik bigarrena bideratzen duen autonomia-erkidegoa


Ikuspegi konparatiboa lortzeko, ordea, magnitude horiek termino erlatiboetara eraman beharra dago. Hori eginez gero, ikusiko dugu Euskadin biztanle bakoitzeko batez besteko gastua 51 €-koa dela, Estatuaren batez bestekoa (27 €) baino 24 € gehiago (% 88,9 gehiago).

Ildo beretik, Euskadi hirugarren lekuan dago etxebizitza eskuratzen laguntzera eta eraikuntza sustatzera bideratzen duen aurrekontuaren zatia erreparatuz gero.

Azpitarratu egin behar dugu, Madrileko erkidegoa izan ezik, finantzaketarako foru-araubidea duten autonomia-erkidegoak (EAE eta Nafarroa) direla gastuaren ehunekorik handiena bideratzen dutenak esparru horretara. Gainerako autonomia-erkidegoetan, ordea, % 1etik behera bideratzen dute.


Ildo horretan, ageriago dago etxebizitzara bideratzen duten zati txikia, beste gastu batzuetara bideratzen dutenaren aldean. Euskadin, adibidez, aurrekontu publikoa banatzeko erabiltzen diren 26 ataletatik, osasunak eta hezkuntzak (bi atal nagusiek) aurrekontuaren % 60 inguru hartzen dute, eta hurrengo 6 atalek (zor publikoak, gizarte-zerbitzuek eta gizarte sustapenak, herritarren segurtasunak...) beste % 30.

Likidatutako gastu gordina etxebizitza eskuratzen laguntzeko eta eraikuntza sustatzeko. 2016 (milioi €-kotan)



Iturria: Ogasun Ministerioaren informazio-zentrala

Etxebizitza eskuratzen laguntzeko eta eraikuntza sustatzeko biztanle bakoitzeko likidatutako gastua, eta guztira likidatutako gastuarekiko %-a. 2016



Iturria: Geuk egina, Ogasun Ministerioaren informazio-zentralaren datuak oinarri hartuta.


Aurreko grafikoan ikus daiteke etxebizitza eskuratzen laguntzera eta eraikuntza sustatzera biztanle bakoitzeko bideratutako gastuaren eta gastu osoarekiko proportzioaren artean dagoen paralelismo logikoa. Nolanahi ere, gastu handiagoa egiteak ez du esan nahi, halaber, etxebizitza-politikek garapen handiagoa izan dutenik edo ekimen gehiago jorratu direnik; izan ere, gerta daiteke aurretik egindako jarduketek eragindako gastua izatea (zorra, sozietate publikoen hartzekodunen konkurtsoa edo likidazioa...).

1.2.- 2016n etxebizitza-arloan egindako gastuaren ikuspegia, gastu-kapituluen arabera

Autonomia-erkidegoek errealtate desberdinak dituzte hala antolamendu-egituran nola gastuaren helmugan

Gastu-kapituluen arabera sailkatutako informazioak aurrekontuaren azken helburuari buruzko informazio zehatza ematen ez duen arren, autonomia-erkidegoen erakunde-egiturari buruzko pista batzuk ematen dizkigu.

Autonomia erkidegoek etxebizitza eskuratzen laguntzeko eta eraikuntza sustatzeko egindako gastuaren banaketa, kapituluaren arabera. 2016



Iturria: Geuk egina, Ogasun Ministerioaren informazio-zentralaren datuak oinarri hartuta.

Gastu-kapituluen egitura

ERAGIKETA KORRONTEAK

- Langile-gastuak
- Gastu korronteak ondasunetan eta zerbitzuetan
- Transferentzia korronteak
- Finantza-gastuak

KAPITAL-ERAGIKETAK

- Kapital-transferentziak
- Benetako inbertsioak

FINANTZA-ERAGIKETAK

- Finantza-aktiboak
- Finantza-pasiboak

Euskadin gastu-egitura orekatua dago: kapital-transferentziek, transferentzia korronteek eta benetako inbertsioek likidatutako gastuaren % 75 inguru hartzen dute

Adibidez, Madrilen finantza-eragiketek aurrekontuaren % 50 inguru hartzen dute eta, beraz, pentsa daiteke aurrekontuaren zati handi bat iraganeko jarduketek eragindako aurrekontu-beharrak (% 27,8ko finantza-pasiboak) estaltzera eta beste erakunde publiko batzuk (enpresa publikoak, erakunde autonomoak eta udalak) finantzatzera bideratzen dela.

Finantza-eragiketak

- **Finantza-aktiboak:** beste erakunde batzuentzako (enpresa publiko, udal...) laguntza
- **Finantza-pasiboak:** zorra amortizatzea, bermeak itzultzea...

Katalunian, berriz, langile-gastuek eta gastu korronteek oso pisu erlatibo txikia dute eta transferentzia korronteek aurrekontuaren % 50 baino gehiago hartzen dute. Esan daiteke, beraz, erakunde-egitura oso deszentralizatua dagoela edota transferentzia korronteen bidez finantzatzeko diren hirugarren erakundeetan oinarritzen dela.

Euskadiri dagokionez, gastuaren banaketa ez da asko urruntzen autonomia-erkidegoen batez bestekotik. Nabarmentzekoa da kapital-eragiketari lotutako kapituluak dakarten gastua. Zuzenean edota etxebizitza-alorreko sozietate publikoen eta beste erakunde batzuen bidez etxebizitza-alorrean egindako gastua (etxebizitza publikoen sustapena, partikularrek etxebizitza eskuratzeko laguntzak, birgaitzea...) islatzen duten kapitulu horiek likidatutako gastuaren % 55 hartzen dute., Euskadi bigarren postuan dago kapital-transferentzietan biztanle bakoitzeko egindako gastuan, Nafarroaren atzetik. Orobat, bigarren postuan dago (kasu honetan Madrileko erkidegoaren atzetik) benetako inbertsioen atalean.


Kapital-transferentziak:

Beste erakunde batzuei (enpresa publiko eta erakunde autonomoei, tokiko erakundeei, enpresa pribatuei, familiei...) egindako ordainketak, kapital-eragiketari finantzatzeko.


Benetako inbertsioak:

azpiegitura eta ondasun berrietan egindako inbertsioa (lurzoruak erostea, etxebizitza erosi edo eraikitzea, zerbitzua emateko ekipamendua edo instalazioak erostea...).

Kapital-transferentziak biztanleko. 2016 (€-kotan)



Benetako inbertsioak biztanleko. 2016 (€-kotan)




Beste alde batetik, transferentzia korronteen atalak hauxe adierazten digu: zenbat diru bideratzen duten erkidegoek etxebizitza-alarreko sozietate publikoek eta beste erakunde batzuek egindako gastu korrontea ordaintzera eta inbertsiorik ez dakarten partikularrentzako laguntzetara (adibidez, alokairua ordaintzen laguntzera). Horri dagokionez, Euskadi rankingeko laugarren postuan dago, baina nabarmendu egin behar da **Euskadin laguntza batzuk, hala nola Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria edo Gizarte-larrialdiko laguntzak Enplegu eta Gizarte Politika Sailari atxikita daudela eta, ondorioz, aurrekontuaren beste atal batzuetan ageri direla.**

Transferentzia korrontek:

Beste erakunde batzuei (enpresa publiko eta erakunde autonomoi, tokiko erakundeei, enpresa pribatuei, familiei...) egindako ordainketak, eragiketa korrontek finantzatzeko

Transferentzia korrontek biztanleko. 2016 (€-kotan)




Iturria: Geuk egina, Ogasun Ministerioaren informazio-zentralaren datuak oinarri hartuta.

1.3.- Etxebizitza-arloko beste gastu batzuk, etxebizitza eskuratzen laguntzeko eta eraikuntza sustatzeko atalean sartuta ez daudenak

2016an, Euskadin 103 milioi euroko laguntzak eman zaizkie familiei alokairua ordaintzen laguntzeko, gizarte-esparruak kudeatuta

Gizarte-esparruak kudeatutako laguntza nagusiak (milioi €-kotan)



Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema tresna garrantzitsua da baliabide nahikorik ez duten pertsonen etxebizitzaren alorrean dituzten premiak estaltzeko. 2016an, laguntza horiek ia boskoiztu egin zuten etxebizitza eskuratzen laguntzeari eta eraikuntza sustatzeari lotutako transferentzia korronteen zenbatekoa. Izan ere, laguntza horiek etxebizitzaren alorretik zuzenean kudeatuko balira, 124 milioi euroko transferentzia korrontek egongo lirerateke (56,6€ biztanleko).

1.4.- Zerga-gastuaren eragin handia


375 milioi euroko gastua likidatuta, Euskadi da etxebizitza-alarreko zerga-gastu handiena duen autonomia-erkidegoa

Zerga-pizgarriak (etxebizitza erosteagatiko edo alokairuagatiko kenkariak, birgaitzeari lotutakoak...) etxebizitza-politiketan esku hartzeko ildo garrantzitsua izanik ere, ez dira aurrekontuetan likidatutako gastuan agertzen, zerga-gastua ez delako benetako gastua, diru-sarreraren murrizketa baino.


Euskadi da autonomia-erkidego guztien artean ohiko etxebizitza erosteagatiko eta alokatzeagatiko kenkari orokorre eusten dien bakarra, Estatuko gainerako erkidegoetan laguntza horiek pixkanaka desagertzen joan dira eta. Zehazki, 2013an desagertu ziren inbertsioagatiko (erosteagatiko) kenkari orokorrak, eta 2015ean alokairuagatikoak. Horiek horrela, gaur egun erregimen iragankorraren babesean¹ dauden zergadunek baizik ez dituzte eskuratzen.

¹ Etxebizitza 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi eta inbertsioagatiko kenkariaren onuradun direnek, edota 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen errentamendu-kontratua egin dutenek.

Etxebizitza-arloko kenkari orokorrak (autonomiari dagokion zatian). 2015 (milioi €-tan)



Etxebizitza-arloko kenkariak biztanle bakoitzeko (autonomiari dagokion zatian). 2015 (milioi €-tan)



Iturriak: Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saila eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aitortzen dutenen inguruko estatistika, Zerga Administrazioako Estatu Agentzian.

Esan behar da autonomia-erkidego batzuek, zerga-eskumenak erabiliz, etxebizitza erosteko edo alokatzeko bestelako pizgarri batzuk ezarri dituztela PFEZn, normalean kolektibo edo errenta-maila jakin batzuei lotuta. Halako kenkarietara buruzko datu bereizirik ez dugun arren, askoz ere eragin txikiagoa dute.

1.5.- Benetan likidatu den gastua, aurrekontuan sartutako gastu osoarekiko


2016an autonomia-erkidego guztietan (denetan batera), ekitaldiko aurrekontuan etxebizitza alorrera bideratutako gastua baino 265,6 milioi euro gutxiago likidatu ziren

Ohikoa izaten da herri erakundeek azkenean benetan gauzatzen duten gastua ez etortzea bat aurrekontuan jasotakoarekin; horregatik, batzuetan informazio nahasiak egoten dira administrazioek helburu jakin batzuetara bideratutako baliabideen harira. Nolanahi ere, aurrekontua gauzateari buruzko datuek agerian jartzen dute autonomia-erkidego batzuetan (Murtzian, Gaztela-Leonen edo Extremaduran, adibidez) aurrekontua gauzatu ez izanak eragin duela gastu-murrizketa, eta beste erkidego batzuetan (hala nola Euskadin, Errioxan edo Kanarietan) etxebizitza-alorrera bideratutako aurrekontua bera murriztu dela nabarmen.


Etxebizitzaren Estatu Plana (ikusitako I. eranskina) etxebizitza-alorreko jarduketak finantzatzeko funtsezko iturria da autonomia-erkidegoentzat. Plan horretan Estatuak jartzen duen ekarpena autonomia-erkidegoek egindako kofinantzaketari lotuta egoten da eta, praktikan aurreikusitakotik behera gauzatu dira, aurrekontu-murrizketak izan, beste arrazoi batzuk izan.

Etxebizitza eskuratzen laguntzeari eta eraikuntza sustatzeari lotutako gastuari dagokionez, autonomia-erkidegoek hasieran aurrekontuan jaso zutena baino 265,6 milioi euro gutxiago egikaritu dituzte (-% 18,8).

Aurrekontuan jasotako gastua eta likidatutakoa. 2016



Aurrekontuan jasotako gastuaren eta likidatutakoaren arteko desbiderapena. 2016



Iturria: Ogasun Ministerioaren informazio-zentrala

Asturiasekin batera, Euskadin izan da desbiderapenik txikiena aurrekontuan jasotako gastuaren eta azkenean likidatu den gastuaren artean

Bi erkidegotan, Katalunian eta Asturiasen, aurrekontuan hasieran jasotakoa baino gastu handiagoa egin da (% 140,3 eta % 101 hurrenez hurren). Gainerako autonomia-erkidego guztietan, berriz, hasieran jasotako aurrekontua baino gastu gutxiago likidatu da azkenean. Asturiasen eta Euskadin egon da alderik txikiena hasieran jasotako gastuaren eta azkenean gauzatutakoaren artean.


2.- Etxebizitza-alorrean likidatutako gastuaren bilakaera

Etxebizitza eskuratzen laguntzeko eta eraikuntza sustatzeko egindako gastuak bilakaera heterogeneoa du autonomia-erkidegoaren arabera, bai atzeraldian (2008-2014) bai susperraldian (2014). Tarte horietan gastuak gorabeherak izan ditu, batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago erabili baita alor horretarako.

2.1.- 2008-2016 balantze orokorra

Etxebizitza-politika aktiboetarako gastuaren gorakada txikia antzematen bada ere, 2016an, oraindik ere, krisi-aurreko aldi baino dezente gutxiago bideratu da etxebizitza-alorrera. Joera hori autonomia-erkidego guztietan antzematen da (guztietan ere 2008an likidatutako gastua baino dezente gutxiago erabili baitute 2016an), Madrilen izan ezik, nahiz eta erkidego horretako gastu-mailak ez duen adierazten, halabeharrez, jarduketa gehiago egin direnik.


Biztanle bakoitzeko likidatutako gastua. 2008-2016 (eurotan)



Iturria: Ogasun Ministerioaren informazio-zentrala

Autonomia-erkidego guztiak batuta, benetako inbertsioek nabarmen egin dute behera 2008tik 2016ra bitartean. Benetako inbertsioek 403 milioi euro (-% 70,5) egin dute behera, eta kapital-transferentziek 995 milioi euro (-% 69,3). Halatan, kapital-eragiketei lotutako kapituluak galarazten dute etxebizitza-alorreko gastuak gora egitea.

Liquidatutako gastuaren bilakaera kapituluaren arabera. 2008-2016 (milioi €-kotan)



Iturria: Ogasun Ministerioaren informazio-zentrala


2.2.- Etxebizitza-alarrean likidatutako gastuaren bilakaera atzeraldian (2008-2014)

Etxebizitza-alarreko gastuak nonahi egin du behera atzeraldian (2008-2014)

Estatu osoa batuta, etxebizitza eskuratzen laguntzeko eta eraikuntza sustatzeko likidatutako gastua 2.535,7 milioi eurokoa izan zen 2008an, gastu publikoaren murrizketen eragina antzematen hasi zen urtean. 2014. urtea (gastua berreskuratzen hasi delako zantzuak antzeman diren lehen urtea) hartzen badugu alderaketa egiteko erreferentziatzat, autonomia-erkidego guztietan murriztu da nabarmen etxebizitza-alarrean likidatutako gastua, Madrilen izan ezik, finantza-eragiketei lotutako % 8ko hazkundea gertatzen baita bertan. Oro har hartuta, gastua ia erdira murriztu da (-% 46,3). Murtziako Eskualdean izan da murrizketarik txikiena (-% 12,4) eta Errioxan, berriz, handiena (-% 83,3).

Bi ekitaldietan (2008an eta 2014an), Euskadi bosgarren postuan dago gastuaren rankingean, eta Estatuko batez bestekoaren pareko beherakada jaso du (-% 46,3). Halere, 94 milioi eurotik gorako beherakada izan arren, 100 milioi eurotik gorako gastua mantentzen duen bost autonomia-erkidegoetako bat da.

Etxebizitza-alarrean likidatutako gastu osoaren bilakaera. 2008-2014 (mila €-kotan)




Iturria: Ogasun Ministerioaren informazio-zentrala

Biztanle bakoitzeko gastuaren ratioak eskaintzen duen ikuspegi konparatiboak azterketa areago sakontzeko aukera ematen digu. 2008an 71,8 euro gastatu zituzten batez beste biztanleko (52 euro Nafarroako gastua kontuan hartu ezean). Euskadi rankingaren bigarren postuan dago, Nafarroako Foru Erkidegoaren atzetik, baina Nafarroan 2008an jasotako datuek eta ondorengo bilakaerak datu horietara iristeko desberdintasun metodologikoren bat egon dela ematen du aditzera. Ondoren datoz Extremadura, Asturias eta Errioxa, nahiz eta gastu absolutuetan garrantzi handirik izan ez.

2008an aldaketak antzematen dira. Erkidego guztietan (Madrilen izan ezik) likidatutako gastu osoak behera egin duenez, logikoki, biztanleko bakoitzeko gastuak ere behera egiten du. Nafarroan gastuak beherakada handia izan duen arren, rankingean lehen postuan jarraitzen du, baina aurretiaz baino askoz ere alde txikiagoarekin.

Euskadi hirugarren postura jaisten da baina biztanleko 50 eurotik gorako gastua mantentzen du, estatuaren batez bestekoa (28,8 euro) baino 21,3 euro gehiago. Beste alde batetik, Andaluzian izan ezik, biztanleria handiena duten erkidegoetan (Madrilen, Valentzian eta Katalunian) adierazle honek gutxiago egiten du behera 2008aren aldean eta, ondorioz, rankingean gora egiten dute. 2008an rankingean goiko aldean zeuden erkidegoek, berriz, beherakada handiagoak dituzte zenbateko absolutuetan.

Etxebizitza-alorrean biztanleko likidatutako gastuaren bilakaera. 2008-2014 (€-tan)




Iturria: Geuk egina, Ogasun Ministerioaren informazio-zentralaren datuak oinarri hartuta

Murrizketa handia inbertsioetan eta gastu korronteetan

Beharakada nabarmena antzematen da zuzenean administrazioak egindako inbertsioei (benetako inbertsioak: -%70,3) edo beste erakundeen bidez egindako inbertsioei (kapital-transferentziak: -% 61,4) lotuta dauden kapital-eragiketetan. Beste alde batetik, finantza-gastuek % 72,2 egin dute gora ² eta eragiketa korronteei lotutako gainerako kapituluak, berriz, murrizketa handiak jasan dituzte ³ (langile-gastuak: -% 25,5; gastu korronteak: -% 46,9; eta transferentzia korronteak: -% 15,8).

Gastu-kapituluen bilakaera. 2008-2014



Iturria: Ogasun Ministerioaren informazio-zentrala

² Madril izan ezik (langile gastuak: +% 17,0; gastu korronteak: +% 195,0; eta transferentzia korronteak: -% 100).


³ Informazioa ez desitxuratzeko, Madrileko datuak kanpoan utzi dugu. % 10.907,2ko hazkundea izan zen bertan.

2.3.- Susperraldi ekonomikoaren hasieratik etxebizitza-alarrean likidatutako gastua (2014-2016)

Susperraldi ekonomikoan bilakaera heterogeneoa izan da, baina gastua zertxobait egonkortuta


2016. urtean autonomia-erkidego guztietan etxebizitza eskuratzen laguntzeko eta eraikuntza sustatzeko likidatutako gastu osoaren bolumena 2014koa baino txikixeagoa bada ere, joera-aldaketa antzematen da, eta 17 autonomia-erkidegoetatik 9tan gastuak bilakaera positiboa dauka. Nolanahi ere, bilakaera hori ez da leku guztietan berdina: soilik Andaluzian ikusten da urtetik urterako bilakaera positiboa 2014-2016 aldiak hartzen dituen hiru urteetan; gainerako erkidegoetan, urte batzuetan gastuak gora egiten du, eta beste batzuetan behera. Ehunekoari erreparatuta, -% 4,5eko murrizketa antzematen da; 2008-2014 aldian izandako -% 46,3koarekin alderatuz, ordea, gastua zertxobait egonkortu egin dela ikus daiteke. Testuinguru horretan, Euskadin aldi horretan egon den gastuaren gorakada txikiak (+% 0,8) gastuaren rankingean postu bat gora egitea ekarri dio; hala, laugarren postuan kokatu da, aurrean Andaluzia, Katalunia eta Madril dituela (guztiak ere askoz ere erkidego handiagoak biztanleriari dagokionez).

Etxebizitza-alarrean likidatutako gastu osoaren bilakaera. 2008-2014 (mila €-kotan)



Beste alde batetik, biztanleko batez besteko gastuak 1,8 euro egin du behera Estatuan; Euskadin gorakada txikia izanik, rankingaren hirugarren posizioari eutsi dio, biztanleko 50 eurotik gorako gastua eginda (2015ean bezala). Nafarroa eta Madril baino ez ditu aurretik rankingean. Gainerako autonomia-erkidegoei dagokienez, denetarikoa bilakaerak daude. Katalunian, adibidez, biztanleko gastuak pixka bat gora egin baina rankingean behera egiten du; Valentziako Erkidegoak biztanleko gastua erdira murriztu eta nabarmen egin du atzera, eta Andaluziak hobekuntza txikia lortu du.

Etxebizitza-alarrean biztanleko likidatutako gastuaren bilakaera. 2014-2016 (€-tan)




Iturria: Geuk egina, Ogasun Ministerioaren informazio-zentralaren datuak oinarri hartuta.

Gastu korrontekak egonkortu eta finantza-gastuan murriztu egin dira, baina jarraitu egin du kapital-eragiketeki lotutako joera negatiboak

Kapital-transferentzien joera negatiboak iraun izana da (-% 20,32) aldi horretan izan den gastuaren beherakadaren arrazoi nagusia. Inbertsio-ahaleginari lotutako beste kapituluak, benetako inbertsioenak, % 0,5 egin du gora, baina datu hori zuhurtziaz hartu behar da, Madrileko datua alboratuz gero, -% 30,5eko beherakada izango luke eta. Gainerako kapituluak bilakaera positiboa izan dute, pixka bat gora eginda langile-gastuen eta gastu korronteen kapituluetan; nabarmen hobetuta transferentzia korronteen kapituluan (+%25,7); eta -% 88,4ko beherakada handia, berriz, finantza-gastuetan.⁴

Gastu-kapituluen bilakaera. 2014-2016




Iturria: Ogasun Ministerioaren informazio-zentrala

Euskadin 2016an iritsi da gastuaren susperraldia

Euskadiri dagokionez, 2016an hasi da gastuaren susperraldia, urte horretan likidatutako gastuak urte arteko +% 8ko hazkundera izan baitu. Gainera, nabarmendu egin behar da hazkunde horrekin batera, finantza-gastuak nabarmen murriztu direla (-% 96,6), garrantzi gabeko bihurtzeko punturaino, eta gora egin dutela, berriz, benetako inbertsioek (+%3,6) eta kapital-transferentziek (+%20,5).

Gastu-kapituluen bilakaera. 2015-2016



Iturria: Ogasun Ministerioaren informazio-zentrala

⁴ Ez dira sartu Madrileko datuak, informazioa ez desitxuratzeko.

3.- Ondorioak

2016an etxebizitza-politika aktiboen gastua zertxobait suspertzen hasi dela ikusten da, baina gastu-mailak krisi-aurreko mailatik urrun jarraitzen du oraindik ere. Autonomia-erkidegoetan ikusten da likidatutako gastua 2008koa baino txikiagoa dela, Madrilan izan ezik, baina erkidego horri dagokionez, iraganeko jarduketek eragindako aurrekontu-betebeharrak daude gastu-maila altu horren atzean.

Etxebizitza-alorrean likidatutako gastua. 2008-2016 (mila €-kotan)

	2008	2011	2014	2015	2016	2008-2016
Madrilgo Erkidegoa	337.433	262.021	364.259	403.238	368.251	% 9,1
Katalunia	327.804	414.253	228.688	376.333	234.091	-% 28,6%
Andaluzia	454.164	166.013	163.898	173.047	176.640	-% 61,1
Euskadi	204.499	127.027	109.769	102.509	110.668	-% 45,9
Kanariak	89.266	87.114	47.866	52.065	62.731	-% 29,7
Valentziako Erkidegoa	140.475	69.695	121.430	179.407	62.364	-% 55,6
Galizia	155.879	80.826	43.543	45.594	49.111	-% 68,5
Nafarroa	240.842	213.484	58.375	46.314	38.727	-% 83,9
Asturias	68.691	70.260	25.734	31.400	33.149	-% 51,7
Extremadura	94.679	82.572	43.836	32.047	29.400	-% 68,9
Gaztela-Mantxa	112.673	124.974	27.992	25.941	27.615	-% 75,5
Aragoi	57.366	51.655	30.348	22.586	27.508	-% 52,0
Murtziako Eskualdea	39.824	24.477	34.891	36.972	25.132	-% 36,9
Gaztela eta Leon	139.811	70.411	34.225	37.047	21.026	-% 85,0
Kantabria	22.922	20.130	10.635	9.470	18.322	-% 20,1
Balearrak	30.856	32.708	14.068	4.895	11.085	-% 64,1
Errioxa	18.550	10.235	3.093	5.534	5.446	-% 70,6
GUZTIRA	2.535.734	1.907.855	1.362.650	1.584.399	1.301.266	-% 48,7

Iturria: Ogasun Ministerioaren informazio-zentrala

Kapital-eragiketeki lotutako kapituluak —horiek izaten dira aurrekontuaren zatirik handiena hartzen dutenak eta, azken buruan, etxebizitza babestua sustatzeko, birgaitzea bultzatzeko... jarduketak finantzatzeko balio dutenak— galgaten dute etxebizitza-alorreko gastuaren susperraldia. Bestela esanda, etxebizitza-alorreko inbertsio-ahaleginean metatu da azken urte gogor hauetako aurrekontu-murrizketa.

Zehazki, 2008-2016 aldirian **benetako inbertsioek 403 milioi euro (-% 70,5) egin dute behera, eta kapital-transferentziek 995 milioi euro (-% 69,3)**. Zentzu horretan, ikus daiteke oraindik ere krisiaren eragina jasaten segitzen dela eta oso zaila izango dela etxebizitza merkeen parke publikoa osatzeko abiadura sendoa lortzea. Gainera, ez da aurreikusten Europar Batasunean ezarritako aurrekontu murrizketak aldatu egingo direnik eta, beraz, zaila izango da luzaroan autonomia-erkidegoek etxebizitza-esparruak behar duen gastu-maila garrantzitsua burutu ahal izatea.

Etxebizitza babestuko parkea sortzea da etxebizitza-politika sozial aurreratuen ardatz nagusietako bat. Hasieran inbertsio publiko handia eskatzen duen arren, hamarkada luzez dauka eragina gizarte osoan, eta inpaktu positibo handia dakar gizarte kohesioan eta bizitza-proiektuak sendotzeko laguntza handiena behar duten giza taldeetan. **Euskadiri dagokionez, 2003az geroztik etxebizitza babestuen kalifikazio iraunkorra (bizitza osorakoa) ezarri ondoren, etxebizitza publikoaren erabilgarritasun eta errentagarritasun soziala maximizatzea lortu da, etxebizitza babestuak etorkizuneko belaunaldietarako ere erabilgarri egongo baitira, inolako mugaketarik gabe eta merkatu liberako ihesik gabe.**

Finantza-pasiboetan eta finantza-gastuen kapituluari izandako hazkundeek agerian uzten dute autonomia-erkidegoek zorpetzera jo behar izan dutela. Beste alde batetik, finantza-gastuen hazkundeak ere erakusten du autonomia-erkidegoek sozietate publikoei eta erakunde autonomoei etxebizitza-alorrean eskaini behar izan dioten finantza-laguntza.

Halere, transferentzia korronteen partidak pixka bat gora egin du eta, ondorioz, kapitulu horretako gastu-egitura nabarmen aldatu ez den arren, ondorioztatu ahal da partikularrei zuzendutako laguntzek (alokairua ordaintzeko...) eutsi edo pixka bat gora egin dutela.

Oro har esan daiteke krisiak pertsonengan izan duen inpaktua arintzera zuzendutako laguntzei eusteko ahalegina egin dela, nahiz eta, azken urteotan halako egoerak biderkatu diren neurrian, agerian gelditu etxebizitza-sistemaren gabeziak.

Euskadiri dagokionez, gogoratu egin behar da Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren bidez kudeatutako aurrekontu-partidak ez direla sartu etxebizitza eskuratzen laguntzeko eta eraikuntza sustatzeko atalean, nahiz eta urtean 100 milioi eurorainokoa ere izan premia dutenei etxebizitza eskuratzen laguntzera bideratutako zenbatekoa. Ordainketa horiek aurrekontu-murrizketetatik kanpo gelditu dira, nabarmen, eta, beraz, esan daiteke gurean erantzuna (ezintasunak ezintasun) egoki samarra izan dela, beste leku batzuekin alderatuta.

Testuinguru zail horretan, **Euskadin**, gainerako autonomia-erkidegoetan bezala, etxebizitza-alorreko gastuak bilakaera negatiboa izan du, argi eta garbi.

Euskadin etxebizitza-alorrean egindako gastua erdira murriztu da 2008tik 2016ra bitartean, nahiz eta urtetik urterako aldakuntzak pixka bat lasaiagoa izan eta, oro har hartuta, bilakaera positiboagoa izan, beste autonomia-erkidego batzuetan baino.

Euskadin likidatutako gastuaren banaketa, 2016 (mila €-kotan)



Iturria: Geuk egina, Ogasun Ministerioaren informazio-zentralaren datuak oinarri hartuta.

Horri esker, Euskadik etxebizitza-alorrean likidatutako gastuaren rankingaren goiko postuetan jarraitu ahal izan du, eta **gorako joera izanik, gainera, 2015etik aurrera**. Hala, **gastu gordinaren rankingean** 2008an eta 2014an zeukan bosgarren posiziotik laugarren posiziora joan da 2016an, **110,7 milioi euro gastatuta**. Biztanle gehien dituzten hiru probintziak baino ez ditu aurretik: Andaluzia, Katalunia eta Madril. **Etxebizitza eskuratzen laguntzeari eta eraikuntza sustatzeari begira biztanle bakoitzeko egindako gastuari erreparatuta, hirugarren posizioan dago Euskadi 2016an, autonomia-erkidegoen artean hirugarrena, biztanleko 50,5 euro gastatuta.**

Era berean, gastu-egitura orekatua mantentzen du, gastuaren hiru laurdenak benetako inbertsioetara, kapital-transferentzietara eta transferentzia korrontetara bideratuta.

I. ERANSKINA ABIAPUNTUKO ESPARRUA ETA AURRETIKO GOGOETA METODOLOGIKOAK

Gastuaren sailkapen funtzionala

Autonomia-erkidegoek etxebizitza-alorrera bideratutako gastu-politikak ezagutzeko, autonomia-erkidegoek 26. atalean («**Etxebizitza eskuratzen laguntzea eta Eraikuntza sustatzea**»⁵) egindako aurrekontu-likidazioak hartzen dira aintzat, izaeraren arabera gastu-kapituluka sailkatuta.

Gastu bateratua:

Administrazioek zuzenean kudeatutako gastua eta enpresa publikoek edo erakunde autonomoek⁶ egindakoa hartzen dute **aurrekontu edo gastu bateratuek**, erakunde horien arteko barne-transferentziak baztertuta. Kasu horretan, autonomia-erkidego bakoitzak erabakitzen du zer erakunde osatzen duten beren aurrekontu bateratua, eta etxebizitza eskuratzeari eta eraikuntza sustatzeari dagokionez, autonomia-erkidegoek ez dute aurrekontuetan txertatzen etxebizitza-alorreko sozietate eta erakunde autonomoei buruzko informaziorik. Hartara, guk gastu bateratu gisa azaldu badugu ere, izen hori ez da erabat baliagarria etxebizitzari lotutako esparruan, ez baitira bertan sartzen sare publiko osoaren gastu-likidazioak (sozietateak eta erakunde publikoak falta dira).

Azterketak hartzen ez dituen esparruak:

Tokiko erakundeek burututako gastua: udalek eginkizun garrantzitsua dute etxebizitza- eta hirigintza-alorrean, eta beraiek likidatutako gastua ez da txosten honetan jasotzen.

Etxebizitzaren Estatu Plana⁷

Etxebizitza-alorreko estatuaren jarduketaren esparrua zehazten du, maila operatiboan, bai eta hori garatzeko Estatuaren erregimen arrunteko autonomia-erkidegoei emango dizkien baliabide ekonomikoak ere. Autonomia-erkidegoek Estatuarekin sinatzen dituzten hitzarmenen bidez gauzatzen da, finantzaketa jaso dezaketen jarduketak zehaztu eta kofinantzaketaren mugak lotuta. Hartara, Estatuak zehaztutako etxebizitza-politikak jorratzeko aurrekontu handiagoa lortzen dute autonomia-erkidegoek.

Nolanahi ere, Estatuaren ekarpena autonomia-erkidegoek jartzen dituzten baliabide propioen arabera izaten da eta bizi izan dugun krisi-egoeran halakoak nabarmen murriztu dira, bereziki 2012an Aurrekontu Iraunkortasunerako Lege Organikoa onartu zenez geroztik; izan ere, defizita kontrolatzeko helburua tarteko, Estatuak, autonomia-erkidegoei eta udalei gastu-sabaia finkatzeko agindua ematen die⁸.

⁵ Autonomia-erkidegoetako eta Estatuak aurrekontu-sailkapenak homogeneizatzeko asmoz, jarduketaren helburuen arabera sailkapena egin da, Nazioetako eta Eskualdeetako Europar Kontu Sistemarekin bat.

⁶ Bere eginkizunak betetzeko, Administrazioak batzuetan erakunde edo organismo publikoen bidez jarduten du. Eskuarki sozietate horien partaidetzaren zatirik handiena kontrolatzen dute.

⁷ Foru Erregimeneko erkidegoek (Euskadik eta Nafarroak) finantzaketa-eredu propioa dute.


⁸ Administrazioek egin dezaketen gastu ez-finantzarioaren muga (zorraren interesak sartu gabe). Aurrekontuak egiteko kalkulu hori egin behar dute.

Kofinantzaketa-irizpidea: Estatuak ematen dituen 100 eurotik 70 jasotzeko, autonomia-erkidegoek 10 euro gehiago jarri behar dituzte, eta gainerako 30 euroak jasotzeko, autonomiek beste 20 euro gehiago jarri behar dituzte.

Etxebizitzaren Estatu Planei lotutako zenbateko handiak

	2013-2016	2017 ⁹	2018-2021
Estatuaren aurrekontua (autonomia-erkidegoen konfinantzaketaren baldintzapean jarritako gehienezko ekarpena)	2.311 milioi	461,6 ¹⁰	1.443 milioi
Estatuak gauzatutako gastua	888,2 milioi (% 38,4)		
Autonomia-erkidegoen gehienezko konfinantzaketa (Estatuak ekarpenik gorenaren egin dezana)	216 milioi		

Autonomia-erkidegoen arabera aurrekontu-banaketa eta 2018-2021 urte anitzekoak (milioi €-kotan)



Iturriak: Sustapen Ministerioa eta Gobernuoko Presidentetza

⁹ 2013-2016 aldirako Etxebizitzaren Estatu Planaren luzapena, 2016ko ekarpen ekonomiko berarekin.

¹⁰ Maileguak subsidiatzeko laguntzak ere barne hartuta.